

**689/2021 EBAZPENA, MAIATZAREN 24KOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIARENA. HORREN BIDEZ ARGITARATZEN DIRA FAK. ESP. BARNE MEDIKUNTZAKO MEDIKU KATEGORIAN HAUTATUTAKO IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ETA TXANDA IREKI BIDEZKO ESLEIPENA, DESTINOA OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU-ERAKUNDEETAN IZANIK.**

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren (2018ko otsailaren 8ko EHAA 28. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 7ko 111/2018 Ebazpenaren bitartez, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide taldeko Fak. Esp. Barne Medikuntzako Medikuko kategorian estatutupeko langilea izateko hautaprobak deitu ziren, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakunde sanitarioetan izanik (2018ko otsailaren 19ko EHAA 35. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren martxoaren 17ko 126/2021 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratzeko agintzen da oposizioaldia gaingitu duten txanda irekiko izangaien zerrenda, azken puntuazioaren arabera eta lehiaketaldiko puntuazioa eta oposizioaldiko puntuazioa bananduta, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide taldeko Fak. Esp. Barne Medikuntzako Medikuko kategorian estatutupeko langilea izateko hautaprobei dagokien puntuazioa, hain zuzen ere. Izangai horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan izango dute destinoa.

Hautaketa-prozesua arautzen duten oinarri orokorretako 16. atalean aurreikusitakoaren arabera, destinoak izangaien artean esleituko dira, egindako eskaeraren eta lortutako puntuazioaren arabera, eta hala badagokio, Barne Medikuntzako FEM eta Barne Medikuntzako FEM, profila: Gaixotasun Autoimmuneak deialdien hautagaien behin-behineko zerrendak jasotzen dituzten ebazpenetan ezarritako aukera-eskubidea gauzatzearekin bat etorriz.

Era berean, hautaprobetan parte hartzetik eratorritako eskubideak galduko dituzte destinoa garaiz eta behar bezala eskatzen ez duten izangaiak, aurreko oinarrian ezarritakoaren arabera, eta benetan eskatutako destinoen artean destinorik lortzen ez dutenek, bai eta oposizio-lehiaketan lortutako puntuazioagatik eskainitako destinoen artean destinorik ez dutenek ere.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

### **EBAZTEN DUT**

**Lehena.**– Osakidetzako webgunean argitaratzeko agintzea hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta destinoen esleipena, Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide taldeko Fak. Esp. Barne Medikuntzako Medikuko kategorian txanda ireki bidez bete beharrekoak egiaztatu dituztenen artean, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko erakundeetan izanik.

Ebazpen horrek hiru eranskin izango ditu: I. eranskinean, destino baten esleipena lortu duten pertsonen zerrenda adieraziko da; II. eranskinean, hautaketa-prozesua gaingitu duten izangaien zerrenda, zeinetan bereiz adieraziko baitira destinoa hautatzeko aukera dutenak eta ez dutenak, eta III. eranskinean, berriz, baztertutako hautagaiak jasoko dira, baztertzeko arrazoiarekin batera.



**Bigarrena.**– Aurreko paragrafoan aipatutako Ebazpenaren I. eranskinean ageri diren esleipendunak estatutupeko pertsonal finko izendatuko dira, Osakidetza zuzendari nagusiaren Ebazpen bidez (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da).

Ebazpen horretan, lanpostuaz jabetzeari eta lanean hasteari buruzko informazioa jasoko da.

**Hirugarrena.**– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 21. atalean ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea egongo da, Ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko maiatzaren 24an.



Iz.: María Rosa Pérez Esquerdo

**OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIA**



**RESOLUCIÓN 689/2021, DE 24 DE MAYO, DE LA DIRECTORA GENERAL DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD, POR LA QUE SE PROCEDE A LA PUBLICACIÓN DE LA RELACIÓN DEFINITIVA DE PERSONAS ASPIRANTES SELECCIONADAS Y LA ADJUDICACIÓN DE DESTINOS POR EL TURNO LIBRE EN LA CATEGORÍA DE FAC. ESP. MÉDICO MEDICINA INTERNA CON DESTINO EN LAS ORGANIZACIONES DE SERVICIOS DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD.**

Mediante Resolución 103/2018, de 5 de febrero, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se aprobaron las bases generales que han de regir los procesos selectivos para la adquisición del vínculo estatutario fijo en Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicándose en el BOPV n.º 28, de 8 de febrero de 2018.

Mediante Resolución 111/2018, de 7 de febrero, de la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se convocaron pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Fac. Esp. Médico Medicina Interna del grupo profesional de Facultativos Médicos y Técnicos con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicándose en el BOPV n.º 35, de 19 de febrero de 2018.

Mediante Resolución 126/2021, de 17 de marzo, de la Directora de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud, se ordena la publicación en la página web de Osakidetza-Servicio vasco de salud de la relación de los/las aspirantes por el turno libre que han superado la fase de oposición, por el orden de su puntuación final, con indicación separada de las puntuaciones obtenidas en las fases de concurso y de oposición, de las pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal estatutario en la categoría de Fac. Esp. Médico Medicina Interna del grupo profesional de Facultativos Médicos y Técnicos con destino en las organizaciones de servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Conforme a lo previsto en el apartado 16 de las bases generales que rigen el proceso selectivo, los destinos se adjudicarán entre las/los aspirantes de acuerdo con su solicitud y por el orden de puntuación alcanzada y conforme, en su caso, al ejercicio del derecho de opción establecido en las resoluciones que contienen las relaciones provisionales de aspirantes de las convocatorias de Fac. Esp. Médico Medicina Interna y Fac. Esp. Médico Medicina Interna, perfil: Enfermedades Autoinmunes.

Asimismo, perderán los derechos derivados de su participación en las pruebas selectivas las personas aspirantes que no soliciten destino en tiempo y forma, conforme a lo establecido en la base anterior, y las que no obtengan destino alguno entre los efectivamente solicitados, así como aquellas a los que, por la puntuación obtenida en el concurso-oposición, no corresponda destino alguno de entre los ofertados.

Por todo lo expuesto, y en uso de las facultades en materia de personal atribuidas por la legislación vigente,

### **RESUELVO**

**Primero.**– Ordenar la publicación en la página web de Osakidetza de la relación definitiva de personas aspirantes seleccionadas y la adjudicación de destinos, entre aquellas que hubieran acreditado los requisitos necesarios, por el turno libre en la categoría de Fac. Esp. Médico Medicina Interna del grupo profesional de Facultativos Médicos y Técnicos con destino en las organizaciones de servicios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Dicha Resolución contendrá tres anexos: el anexo I constituirá la relación de adjudicatarios/as de destino, el anexo II será la relación de personas aspirantes que han superado el proceso selectivo, con indicación separada de las que tienen opción a destino y las que no tienen opción a destino y el anexo III contendrá la relación de aspirantes excluidos/as, con indicación del motivo de exclusión.

**Segundo.**— Mediante Resolución de la Directora General de Osakidetza, que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco, se efectuará el nombramiento como personal estatutario fijo de las personas adjudicatarias incluidas en el anexo I de la Resolución citada en el párrafo anterior.

Dicha resolución contiene en sus resuelvos la información relativa a la toma de posesión e incorporación.

**Tercero.**— Al amparo de lo establecido en el apartado 21 de las bases generales que rigen el proceso selectivo, contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en la página web de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de mayo de 2021.

Fdo.: María Rosa Pérez Esquerdo

**DIRECTORA GENERAL DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD**

